

Kazetari, senez

[Egile ezezaguna]

Aiurri, Zenbaki berezia 1, 1997: 33-41.

Ofizio bat baino gehiago izan duen arren, denen gainera, kazetaritzat du bere burua Martin Ugaldek. "Horixe zen nire betiko sena", dio. Euskalduna futbol taldearen kronikak egiten hasi zen Andoainen eta ospe handiko kazetari izatera iritsi zen, gero, Venezuelan. El Farol aldizkaria zuzentzeaz. gain, dozena bat egunkaritan argitaratu zituen bere lanak. Euskaldunon Egunkaria jaio zenez geroztik, bertako Administrazio Kontseiluko lehendakaria da.

Gaztetan, Andoainen, hasi zen Martin kazetal hastapenetan. Gerra osteko urte ilun haietan *Diario Vasco*-rako kronikak egiten zituen, Euskalduna futbol taldearen kronikak hain justu. Martinek Etxeberrietan jokaturako partiduen berri ematen zuen, eta Echeberrietan jokatzeko zirela zuzentzen zioten egunkariko arduradunek. Behin baino gehiagotan ohartarazi zioten grafia euskalduna erabiltzen jarraituz gero, bota egingo zutela. Ez zion jaramonik egin. Horrelakoetan beti izan da borrokalari.

Ez zuen denbora luzea egin Andoaingo kronikagile lanetan. 1947 urtea zen, aita Venezuelan zen azken urteetan, eta harengana biltzeko asmotan ziren aspalditik. Paperak eskuratu eta bileteak erostea lortu zutenean utzi behar izan zituen hemengo lagunak, senideak eta hemengo lan eta ardurak.

Venezuelako Eusko-Gaztedi

Venezuelara iritsi bezain pronto Eusko-Gaztediko kideekin batera hilabetekari bat argitaratzen hasi zen. Gestetner zahar bat erabiltzen zuten aldizkaria egiteko, letrak kolore morez tintatzen zituena. Apala zen aldizkaria, baina Caracasko Euskal Etxeko gazteek interes handiz irakurtzen zutena. Lehen aldizkari haiek ikustea baino ez dago –Lazkaoko Beneditarren komentuan dituzte artxiboan gordeta– gazte jendearen artean izaten ziren eztabaiden berri izateko. Izengoitien atzean ezkutatuta gehienek, eztabaida sutsuak pizten zituzten aldizkariaren bitartez. Batek hura esan eta hurrengo alean besteak hari erantzun... Baziren euskararen erabilpenari buruzko idatziak, politikoak ere bai, baita hain serioak ez ziren beste batzuk ere, neskek galtzak jartzea bidezkoa zen edo ez mintzagai zutenak, esate baterako.

Aldizkari arina zen, hasiera hartan, Eusko-Gaztedik argitaratzen zuena. Euskal Etxeko ekitaldien berri, giro politikoaren zertzeladak, kirolak, edota sukaldean aritzeko errezetak ematen zituena. Lehenengo ale haietan, 'Gertaerak' izeneko atala hartu zuen bere gain Martin Ugaldek, Erritar ezizenaz baliatuta. Berak ikusitakoak, bizitutakoak, kontatzen zituen, gerora bere bereizgarri izan den estilo bizian.

Apurka-apurka Eusko-Gaztedi aldizkaria sendotzen joan zen, loditzen. Argitalpena asko txukundu zen denborak aurrera egin ahala, eta edukiak ere aberastu egin ziren gutxika-gutxika. Guztira, hogeitun urte luze egin zituen argitalpen hark hilero hilero, hutsik egin gabe, kalera irteten. 1948ko agorrilekoa (abuztukoa) izan zen lehen alea, eta 1968an utzi zion argitaratzeari –jada egunkari formatoa zuen ordurako, publizitatea eta guzti–.

Kazetari izan nahi lanbidez

Venezuelara iritsi bezain pronto hasi zen Martin hango egunkariak goitik behera irakurtzen. Askatasun adierazpena berria zen oso berarentzat; asetu ezinik aritzen zen Caracasco prentsa arakutzen, aztertzen...

Berak ere gozatu egin nahi zuen askatasun hura, bizi. Hala bada, joan zitzaion lan eske *La Esfera* izeneko egunkariko zuzendariari. Hark lehendik ere kazetaritzan lan egin ote zuen galdetu zion, eta, batez ere, ea Venezuelako Kazetarien Elkartean inskribitua zegoen. Eta ez zegoen, eta ezin egon zitekeen, gainera, baldin eta aurrez egunkariren batean lan egindakoa ez bazen. Atsekabetuta utzi zuen horrek; kazetari izan nahi eta ezin!

Handik gutxira etorri zitzaion, baina, bere bizimodua aldarazi zuen eskaintza. Euskal Etxera joan ohi zen lagun bat, Francisco Villanueva "Paquito" izenekoa, *Elite* aldizkariko zuzendaria izendatu berri zuten, eta hark berarekin lan egiteko eskaintza egin zion, Eusko-Gaztedin idatzitakoak ezagun baitzituen. Hala hasi zen Martin Ugaldere kazetal ibilbide luzea Venezuelan.

Lehen urte haietan denetarik egitea egokitu zitzaion. Hasieratik bukaeraraino egiten zuten aldizkaria langileek. Idatzi ere, denetaz idaztea egokitu zitzaion Martini: nola boxeoz eta beisbolaz, hala politikaz eta kulturaz.

Venezuelartzeko ahalegina

Herrialde hartan kazetal lanetan hasi eta berehala konturatu zen venezuelarrei zuzendu behar bazitzairen, venezueleraz behar zuela bere mezua helarazi. Bazekien, hangoekin alderatuta, bere gaztelania gogorra zela, euskal kutsua zuela eta ezin izango zuela albo batera utzi; baina bazekien, baita ere, letren bitartez lortu zezakeela hizkuntza goxo hartara moldatzea. Eta ahalegin horretan hasi zen burubelarri: "Esta disparidad entre la literatura española y la venezolana era para mí en ese momento un terreno de libertad al que podía acceder por voluntad de incorporarme al país que comencé sentir como mi 'otra' patria, y eso sí lo intenté. A mi medida, y lentamente. Tenía en este campo una ventaja, que el venezolanismo estaba vivo".

Ari zen apurka moldatzen, "venezuelartzen"; bai idazkerari erreparatuta eta baita aldizkarirako jorratzen zituen gaiei begiratuta ere. Venezuelarrek gertu-gertutik sentitzen zituztenak kontatzen zituen berak, haietzako baitzen kazetari. Eta hala egokitu zitzaion Venezuela aztoratu zuen berria ematea: Carlos Delgado Chabauld hil zutenekoa. 1947an konstituzio berria onartu eta Romulo Gallego lehendakari aukeratu zuten Venezuelan. Handik urtebete eskasera, Chabauld Defentsa ministroak estatu kolpea eman zuen, beste

bi buruzagi militarrekin batera. Hiruetatik demokratena jotzen zena, Chabauld bera, hil egin zuten 1950ean.

Gertakari zoritzarreko hark erabat asaldatu zuen Venezuelako gizartea. Baita *Elite*ko erredakzioa ere. Juan de Guruceaga aldizkariko buruak erabaki zuen 10.000 aleko tirada berezia egitea; Ricardo Leizaolak (Eusko Jaurlaritzako lehendakari izan zenaren anaia, editorea zen bera *Elite* argitaratzen zuen inprentan), berriz, marrazki eta diseinu berezien ardura hartu zuen, eta Martinek, azkenik, erredakzioarena. Bi astetan aritu zen kalean gertakarien kronikak egiten.

Haiek bihurtu zuten ezagun Ugalde kazetaria. Orduantxe? jaso zuen *El Nacional* Venezuelako egunkari inportanteko zuzendariaren deia: bere erredakzioan nahi zuela, ondo ordainduko ziola. Martinek *Elite* utzi nahi ez, ordea, eta eskaintza ez onartzea erabaki zuen. Gainera, *Elite*-n agindu zioten *El Nacional*-eko soldata bera emango ziotela.

Creole Petroleum Corporationeko argitalpenen zuzendari

Elite maitea zuen oso, hark eman baitzion senez sentitzen zuen lanbidean aritzeko lehen aukera. Aldizkari hura argitaratzen zuen inprimategi handian Creole Petroleum Corporation petrolio enpresa handiaren hilabetekaria ere argitaratzen zuten, *Nosotros* izenekoa. Alfredo Armas Alfonzo zuzendariak eskatu zion Martini ia berak hartuko zuen aldizkari horren ardura, berak *El Farol* izenekoa ere zuzentzen baitzuen eta ezinezkoa gertatzen baitzitzaion biak aurrera ateratzea. Martinek baiezkoa eman zuen. Han hasi zen lanean; ez zion baina, *Elite*-n idazteari utzi.

Handik gutxira, *Nosotros* ezezik, Creoleko gainontzeko argitalpen guztien zuzendaritza hartu zuen Martinek. Guztietan garrantzitsuena *El Farol* izeneko aldizkaria zen, Venezuelako oso ezaguna zena. Kultur aldizkaria zen, kategoria handikoa.

Aldizkari horretako ardurek libre uzten zioten denbora Venezuela ezagutzeko aprobetxatu zuen. Bidai haiek erreportaietan isladatu zituen eta, hala, Venezuela deskubriarazi zien venezuelatarrei: Andeak, Brasil ondoko oihana, kostaldeko herriak, indioak... Venezuelaren berri bere osotasunean eta aniztasunean nahi zuen jaso gero venezuelarrei erakusteko.

Erreportai sail bikain hura *El Nacional* egunkariak argitaratu zion. Guztiak jasota, Kazetaritza Eskolako testuliburu bezala aukeratu zituen gero Los Andesko Unibertsitateak. *Cuando los peces mueren de sed* liburuan geratu dira, betirako, bilduta.

Kazetari klandestinitatean

El Farol aldizkarian hamabost urte egin zituen lanean, harik eta Ugaldetarrek Euskal Herrira itzultzea erabaki zuten arte. 1969a zen, artean frankistak ziren agintean, eta Martinek prentsa ofizialean lan egiteko aukerarik batere ez zuen. Euskal Etxeko lehendakari izana zen Caracasko euskal etxean eta Eusko Alderdi Jeltzaleko ordezkaria Venezuelako. Curriculum txarra zen hori garai hartako kazeta ofizialentzat.

Baina ez zituen, horregaitik, kazetari lanak utzi. *Argia* aldizkarirako idatzi zituen makina bat artikulua, batipat garai hartan, gori-gorian zen eztabaidari buruzkoak: euskara batua eta 'h' letraren erabilerari buruzkoak, alegia.

Itzuli berritan hartu zuen, gainera, EAJko *Alderdi* agerkari ofizial eta klandestinoaren ardura. Polizia espainolak atxilotu eta mugaz beste aldera bota zuenean, agerkarian lanean aritu zen buru-belarri Donibane Lohitzunen.

Garai hartan egin zituen, baita ere, liburu moldean argitaratu zituen elkarrizketa luzeak. Kazetal lan aberatsak dira horiek, elkarrizketatua eta elkarrizketatzailearen arteko solasaldi bizian gauzatzen direnak.

Hablando con los vascos izan zen lehena. On Joxe Migel Barandiaran, Koldo Mitxelena, Ramon de la Sota, Pedro Arrupe, Agustin Ibarrola eta Isidoro Fagoagari egindako elkarrizketak bildu zituen bertan. Jorge Oteizari egindakoa ere liburu horretan argitaratzeko asmoa zuen Martinek, baina zuzenketak egin ziezazkion hari bidalitako orijinala ez zuen garaiz jaso.

Oteizaren elkarrizketa beste liburu baterako uztea erabaki zuen horrenbestez, eta beste eskulturgile ezagun bati egindakoarekin osatzea, Eduardo Chillidarenarekin, hain zuzen ere. Oteizak, ordea, ez zuen tratua onartu. Hala bada, *Hablando con Chillida, escultor vasco* argitaratu zen, elkarrizketa bakar batekin. Oteizari egindako elkarrizketa argitaratzeke dago oraindik ere.

***Deia* egunkariko zuzendariordea**

Euskal Herrira itzuli zenez geroztik, kazetari lanetan ari zen arren, lanbide finkorik ez zuen arlo horretan. Diktadorea hil eta egoera politikoa normaltzen hasi zen arte itxaron behar izan zuen berriz ere betiko lanbide zuen horretan hasteko. Oraintxe 20 urte direla, bi egunkari berri sortu ziren Euskal Herrian: *Egin* eta *Deia*. Azken horretan hasi zen lanean, zuzendariorde lanetan hasi ere.

Euskarako gaien ardura zuen berak, *Deia*, *Egin* bezala, proiektu elebidun gisa jaio baitzen. Ez zen eginbehar erraza, ordea. Euskara, inondik inora, ez zegoen gazteleraren pare, eta gainera, ez zegoen helburu hori lortzeko kontzientziarik. Borroka latzak izan zituen Martinek erredakzioko arduradunekin, erreportaiak eta berriak euskaraz argitaratu zitezten. Lanak eman zizkion astean behin euskarazko elkarrizketa bat argitaratzeak, ez elkarrizketatuak topatzen ez zituelako, erredaktore buruari-eta euskarazko orria interesatzen ez zitzaielako baizik. Inork irakurtzen ez zuela eta, euskara garesti ateratzen zela esaten zioten. "Irakurri dadin idatzi egin beharko dugu ba", erantzuten omen zuen berak, tinko.

Garai hartan ez zen posible euskarazko egunkaririk egitea. Ez zegoen euskal kazetaririk. Idazleak bai, baina kazetaririk ez. Martini berari ere ondo asko kostatu zitzaion euskarazko kazetari izan zitekeela konturatzea. Venezuelan 22 urte gaztelaniaz idazten eman ondoren, Euskal Herrira itzulita jabetu zen lan bera euskaraz ere egiteko gai zela. Aitortua du berak izugarri aberastu zuela horrek.

Euskaldunon Egunkaria, ametsa gauzatua

Aberastasun hori, inon baino hobeto, *Euskaldunon Egunkaria*-n isladatu ahal izan du Martinek; bertan gauzatu du bere betiko ametsa, euskara hutsezko kazeta.

Martin Ugaldere bi alderdirik adierazgarrienak ezin hobeto uztartzen dira proiektu horretan: kazetaritza eta euskalgintza.

Horregatik, gogotik heldu zien hasiera-hasieratik *Egunkaria* kaleratu ahal izateko ahaleginei. 80ko hamarkadaren amaieran, euskarazko egunkaria kaleratu ahal izateko ekimenetan buru-belarri aritu zen. Joxemi Zumalabe zenarekin batera, batean eta bestean aritu ziren babesa lortzeko asmotan. Herritik asko lortu zuten, agintariengandik ezer gutxi.

Hala eta guztiz ere, lortu zuten *Euskaldunon Egunkaria*-k argia ikus zezan. 1991. urteko abenduaren 6an jaio zen; eta pronostiko guztien kontra, oraindik ere, hutsik egin gabe irteten da kalera egunero.

Sortu zen egunetik bertatik egunkari horretako Administrazio Kontseiluko lehendakaria da Martin. Baina ardura administratiboak ezezik, kazetal arlokoak ere baditu. Hamabostean behin eskaintzen digu iritzi orrian zutabetxo gozoa. Hutsik egin gabe betetzen du lan hori ere.